

**BIZITEGI ERAIKINA**  
D MAILA

**IPARRAGIRRE 3**



**Egilea eta data: Francisco Urcola; 1914**

**Deskribapena**

Mehelinen arteko eraikina, jatorriz behe oina eta lau goi oin dituena, gehi 1959ko hiru jasodura. Lehenengoa (5.a) fatxada planoan (jatorrizko atiko atzeraemanaren eraberritze gisa), bigarrena (6.a) azpikoarekiko atzeraemana, eta hirugarrena (7.a) atzeraemana eta estalkipeko oinean. Harlanduzko fatxada (4. oinera arte), zurezko begiratokia ezkerreko baoren parean, eta behe oinean jatorrizko bao bikoitza. Proiektu komuna Iparragirre 5, Mirakruz 10, 10A, 10B eta 10C, eta Iztueta 3, 5, 7 eta 9 zenbakiekin.

**Babes erregimena.**

- 1.- Erregimen orokorra:
  - Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
  - Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta olana eta abarren ezarpena, Plan Berezi honetako Ordenantza Orokorretako babes maila horretarako ezarritako gai horiek erregulatzen dituzten irizpide orokorretara egokituko da.
- 2.- Berariazko erregimena.
  - A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodurak (5., 6. eta 7. goi oinak).
  - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
  - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
    - \* Begiratokien tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da.
    - \* Erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari loturiko gainerakoak, hala badagokio.